

BALIO PROPOSAMENA

Gure Canvasaren barruan aztertuko dugun lehenengo atala balio proposamena izango litzateke. Hau da, zer eskainiko dugun edo zer zerbitzu asetuko ditugun azaltzea, gure enpresak bezeroei eskaintzen dizkion onurak biltzen dituena. Hauek lehiakideetatik desberdintzeko bezeroarentzat balorea sortzen duten elementuak dira.

Gure enpresa hizkuntzak ikasten ari diren pertsonen arteko trukeak egiteko agentzia seguru eta eskuragarria da, besteetatik desberdina dena.

Haren balio proposamena bezeroak diru kopuru handia aurrezteko da, beste agentzia batzuekin konparatuta. Gainera, beste agentziak dituzten hainbat bitartekariak saihesteko aukera ematen dizu, horrela haiei eman beharreko dirua aurreztuz.

Hala ere, beste agentzia batzuetan honelako programa bat eskaintzen dizute, baina lan orduen truke. Gure agentzian, berriz, bidaiako esperientzian eta hizkuntzaren ikaskuntzan oinarritzen da, izugarrizko esperientzia bat lortzeko ostatuagatik ezer ordaindu gabe.

Agentzia honek segurtasuna eskaintzen dizu. Kontrol osoa daukagu gure programako kideetan, honen bidez, trukeak egiterakoan bi pertsonen arteko segurtasuna eskaintzeko aukera dugu.